

## **Garbiñe Iztueta Goizueta**

### **Hizkuntza eta Unibertsitate Saileko zuzendaria**

Garbiñe Iztueta Goizueta (Tolosa, 1972), Ingeles eta Alemaniar Filologian lizentziatua da (1996) eta Filologia Modernoan doktorea (2002) Salamancako Unibertsitatean. 1998z geroztik Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeles eta Alemaniar Filologia eta Itzulpengintza sailean irakasle da, lehenik ingelesezko arloan eta 2000 urteaz geroztik alemaneko arloan. 2007tik 2011ra Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde izan zen. Ikerketaren alorrean, alemaniar literaturaren eta Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasunaren inguruko gaiak izan ditu aztergai.